

## ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

8/2013 AUZIA

**(...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA. (...) SAILBURUORDEZAKO (...) ZERBITZUEN GAIN ERAGINA DUEN LANPOSTU-ALDAKETEN AUZIAN PARTE HARTZEARI BURUZKO KONTSULTA EGIN DU INTERESDUNAK.**

- 1.- Etika Publikorako Batzordeari zuzendutako idatzia bidali du interesdunak. Idatzi horretan adierazitakoaren arabera, interesdunak jakin berri du lanpostu-zerrendaren aldaketa izapidetzen ari dela, eta aldaketa horrek eragina izango duela berak, karrerako funtzionario den aldetik, titular duen lanpostuaren administrazio-unitatearen gain.
- 2.- Interesdunak azaldu du, baita ere, gaur egun berak betetzen duen karguari dagokiola gerora Dekretu bidez behin betiko onartuko diren aldaketa horiek proposatzea.
- 3.- Galdetzen du, beraz, auzi honetan guztian parte hartu behar ez duen, inork zalantzan jar ez dezan interes-gatazkarik egon dela.

### ERABAKIA:

#### I. AURREKARIAK

- 1.- **Lanpostu-zerrendaren aldaketa** bat izapidetzen ari da (...) Sailean. Aldaketa horrek **eragina izango du (...) Sailburuordetzako (...) Zerbitzuen gain**. Aldatuko da, hain zuzen ere, **zortzi lanposturi esleitutako destinoa**. Zehazki, Gasteiztik Bilboko (...)ko Lurralde Bulegora aldatuko lirateke.
- 2.- Interesdunak du **dekretu bidez behin betiko onartuko diren aldaketa horiek proposatzeko eskumena**, betiere, (...) Saila baldin bada horretarako eskudun.
- 3.- Egun indarrean dagoen Lan-baldintzen Hitzarmenean araututako irizpideak beteko dira **zer lanposturen destinoa aldatuko den zehazteko**. Horrela bada, lehenik destinoz aldatu nahi duen inor badagoen aztertuko da. Gerta daiteke lekuz aldatuko diren lanpostu baino boluntario gehiago egotea. Horrelakoetan, langileak lanpostuarekin duen lotura aztertuko da (lanpostuetako titular direnek izango dute lehentasuna) eta, ondoren, haren titulartasuna duten lanpostuan lanean aritutako denbora hartuko da kontuan.

4.- **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario da interesduna, eta (...) lanpostu baten titularra da.**

5.- Interesdunak adierazi du bera ez dagoela aztergai dugun **lanpostu-zerrenda aldatzeko prozeduran parte hartu dutenen artean**, nahiz eta bere lanpostua Bilbora aldatzea gustatuko litzaiokeen.

6. Hala eta guztiz ere, kontsulta egin duen interesdunak adierazi du kargudun publikoen eta asimilatuen Etika eta Jokabide Kodeari atxiki zitzaiola eta, kode horretan araututakoaren arabera, pertsona horiek ez dutela auzi batean parte hartuko baldin eta interes-gatazkarik izan daitekeen susmoa izan badaiteke edo izan daitekeela eman badezake. Horiek horrela, **auzian duen interes pertsonala sakrifikatuta, lekuz aldatuko diren lanpostuak aukeratzeko asmoz ireki den prozesuan parte hartzeari uko egiten diola** jakinarazi zion interesdunak bere saileko zuzendariari 2013ko azaroaren 5ean. Zuzendariari eskatu zion, baita ere, ez zezala pentsatu beste batzuen antzera berak ere eskatzen zuela haren titular den edo berak betetzen duen lanpostua izan dadila Bilbora eramango duten horietako bat.

7.- Horren harira, interesdunak adierazi du gerta daitekeela Bilbora aldatuko diren lanpostuetako bat bera titular duen hura izateari uko egin izanak ez **uxatzea guztiz interes-gatazkarik egotearen inguruko susmoak**; izan ere:

- a) **Haiekin harreman pertsonala izan duen lankideen, egun ere harreman pertsonala duen lankideen**, edo (...) lankideen gain eragina du –edo eragina izan dezake– prozesuak.
- b) Lanpostu-zerrenden aldaketaren ondorioak jasango dituzten edo jasan ditzaketen pertsonekin interesdunak izan dezakeen harremana bazter utzita, **aldaketak ukitutako administrazio-unitateari atxikita dago bera titular den lanpostua**. Beraz, hartutako erabakiak bere lanpostuarekin lotuta zuzena edo zeharkakoa izaten jarraituko du.

8.- Kargu publikodunen eta parekatuen Etika eta Jokabide Kodean xedatutakoaren arabera, auzian interes-gatazkarik egon daitekeen inguruko zalantzak uxatu behar dira. Beraz, aipatu arau horretan xedatutakoa betetze aldera, **auzitik bazter mantendu behar al duen galdetu dio interesdunak Etika Publikorako Batzordeari**, nahiz eta berak nahitaez esku hartu behar duen lanpostu-zerrendaren aldaketa Gobernu Batzordeari helarazteko prozeduran.

9.- (...).

## II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKOA

1.- Kargu publikodunen eta parekatuen Etika eta Jokabide Kodeari boluntarioki atxiki zitzaion interesduna. Beraz, aipatu kode horren edukietan xedatutakoa betetze aldera, interesdunak Etika Publikorako Batzordeari galdetu dio **(...) Sailburuordetzako (...) Zerbitzuen gain eragina izango duen lanpostu-zerrendaren aldaketari buruzko auzian parte hartu behar ez duen**. Izan

ere, zortzi lanposturen destinoa aldatuko da (Gasteiztik Bilbora) eta aipatu lanpostu horietako baten titular da kontsultatzailea.

2.- Auzian parte ez hartzeari buruzko kontsulta egin du interesdunak, baina auziaren testuingurua eta ezaugarriak kontuan izanik, nahiko galdera zabala da hori, eta **zehaztu beharko genuke zer alorretan** ez lukeen parte hartu behar.

- a) Gerta liteke egokiena izatea kontsultatzaileak parte ez hartzea, adibidez, **lanpostu-zerrenda aldatzeko espediente administratiboa aztertzekeo prozesuan**, edota aldaketa dekretu bidez behin betikoz onartzeko proposamena egitean.
- b) Egoki litzateke, bestetik, kontsultatzaileak (...) **betebeharra bete** behar izatetik salbuetsita egotea, betiere, aztergai dugun lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientea dela-eta egin diezazkioketen **galderetan**.
- c) Edo egoki litzateke, azkenik, **hizpide dugun auzia azertu, landu edo hari buruzko erabakiak hartzeko** prozesuan parte ez hartzea interesduna.

### III. KONTSIDERAZIOAK

1.- Auzian parte ez hartzeko betebeharrari buruzko galdera egin zaio Batzorde honi. Aurreko atalean azaldu dugun moduan, **hainbat alorretan** bana daiteke auzian parte ez hartzeko behar hori eta, ondorioz, banan-banan aztertuko ditugu horiek guztiak.

**Batzorde honek auzia aztertzean eta lantzean kontsultatzailea artean ez egoteari** helduko diogu **lehenik**, beste bi alderdien azterketa eta tratamendua baldintzatzen baitu. Auziaren funtsagatik izango du lehentasuna, baita beste bi alderdiak aztertzekeo eta tratatzekeo prozedura baldintzatzen duelako ere.

2.- Kontsultatutako gaia aztertzean eta lantzean parte ez hartzeari dagokionez, **bistan da** kontsulta egin duen pertsonak ezin duela bere gain hartu gaia aztertzekeo eta erabaki bat hartzekeo ardura, nahiz eta pertsona gehiagok parte hartu gaia aztertzekeo eta erabaki bat hartzekeo prozesuan.

Bi arrazoi daude horretarako. Batetik, bera ukitzen duen gai baten inguruan egin duelako kontsulta interesdunak. Azken horrek galdera bati erantzun dakiola eskatu du, eta berak ezin du argitu buruan darabilen zalantza bat. Bestetik, kontsulta egiten duen pertsonak berak egindako galdera erantzuten saiatu behar badu, pertsona horrek zailtasun handiak izango ditu behar den inpartzialtasunez eta objektibotasunez gaia aztertzekeo.

Kasu honetan, prozedura administratibo baten aurrean ez gaudenez, ezin diogu abstentzioaren edo ezespeneraren figurari heldu kontsultatzaileak abstenitzeko legezko baldintzarik betetzen duen eta prozeduran parte behar ez duen ziurtatzeko. Hortaz, beste esparru batera jo beharko dugu kontsultatzaileak prozeduran parte hartu behar duen ala ez erabakitzekeo.

**2.1.- Etika eta Jokabide Kodean** araututakoari helduko diogu. Helduko diegu, batez ere, aztertu edo landu beharreko gaiarekin lotura duten pertsonen auzia aztertzeko eta lantzeko orduan parte hartzeari edo parte ez hartzeari buruzko xedapenei (gure kasuan, aztergai dugun kontsulta egin du interesdunak, eta kontsultatu duen gaiarekin nolabaiteko lotura du; horregatik aztertu behar dugu auzian parte hartu behar duen ala ez).

Oraingo honetan, kargu publikodunen eta parekatuen zuzentasun, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioekin lotura dute aztertzen ari garen egoerek. Lotura dute, baita ere, onestasanaren, desinteres subjektiboaren eta interes-gatazkak saihestearen aldeko jokabideekin. Kontuan izan behar ditugu, beraz, Etika eta Jokabide Kodean 6. eta 11. atalak:

- a) Aipatu kode horretako 6. atalak, esaterako, kargu publikodunen eta parekatuen zuzentasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak arautu ditu. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, kargu publikodunek edo parekatuek hurrengo jokabide eta portaera hauek izan beharko dituzte zuzentasun-balioari eta inpartzialtasun-printzipioari dagokienez:
- "Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo favoritismo-nahiak eraginda jokatu duten susmoa piztu dezakeen ezer.
  - Inoiz ez dute postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka erabiliko norberarentzako abantailak lortzeko; edo, bestela ere, abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan".
- b) Etika eta Jokabide Kodeko 11. atalean, berriz, kargu publikodunen eta parekatuen onestasanari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak arautu dira. Bi multzo nagusitan banatu dira: interes-gatazkak sor ditzaketen jokabideak, batetik, eta opariekin eta izan daitezkeen mozkinekin lotura duten jokabideak, bestetik.

Gerta daiteke zenbait auzitan bat etortzea kargu publiko baten interesak eta, bestetik, norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edota hirugarren pertsonekin partekatutako interesak. Bada, atal horretan xedatutakoaren arabera, kargu publikodunek eta parekatuek era horretako auzietan erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea interes-gatazka litzateke. Horrela bada, norberaren interesek eta interes publikoek talka egiten duten kasuetan kargu publikodunek eta parekatuek zer obligazio bete behar duten adierazi da artikulu horretan. Hala ere, aipatutako horien aurretik bete beharko dira, hala badagokio, legetan xedatutako betebeharrak. Besteak beste, honako betebeharrak hauek jaso dira hizpide dugun atalean:

- "Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-gatazka sortzea.
- Ez dute inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezakete interes publikoekin, edo zalantza jar badezakete erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.
- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitezkeen kargu publikodunek eta parekatuek berehala eman beharko diote horren berri Etika Publikorako Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharrak

dute. Idazkiak aipatu organo horren erantzuna jasoko du berehala. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodunek eta parekatuek, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez dute esku hartuko ezer erabakitzeko prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.

- Kargu publikodunek eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku".

**2.2.-** Argi dago kasu honetan **interes-gatazka** dagoela. Bere kontsulta ebatzi behar duen (...)ko kide baita kontsultatzailea, eta aztergai dugun auziak eragina baitu haren gain, haren aldaketa izapidetzen ari den lanpostuen zerrendako baten titular da-eta. **Interesdunak** adierazi duen moduan, **Etika eta Jokabide Kodean** xedatutakoaren arabera **interes-gatazka** dago.

**2.3.-** Interesdunak Batzorde honi interes-gatazka dagoen berri eman ondoren, zehaztu beharra dago **nork osatuko duen interesdunak egindako kontsulta aztertzeaz eta lantzeaz arduratuko den (...)**.

Alde horretatik, Batzorde honen sorrera, osaera eta funtzioak arautu ditu (...)ko (...) atalak. Horretaz gainera, **testuan jasotako baldintzetako bat betetzen denean nola jokatu beharra dagoen** azaltzen du aipatu atal horrek.

Beraz, azaldutako baldintza horietako bat betez gero, (...)k hartuko du (...)ren lekua.

Hau da, (...)k hartuko du interesdunaren lekua, hark egindako kontsulta aztertu eta landu beharra dagoenean.

Horiek horrela, esan beharra dago hizpide dugun kontsulta proposatu zenetik (...) **aritu dela Batzordearen (...) gisa** hizpide dugun auzia aztertu eta landu den guztietan.

**3.- Lanpostu-zerrenda aldatzeari buruzko administrazio-espeditentia aztertzeako orduan ez sartzeari dagokionez eta aldaketa dekretu-bidez behin betiko onartzea proposatzeari dagokionez, esan beharra dago benetako prozedura administratiboa dela.**

Horrela bada, **Etika eta Jokabide Kodean interes-gatazkari buruz xedatutakoaz gain** kontuan izan beharko ditugu, baita ere, **administrazio-prozedurari buruzko legeetan abstentzioari buruz araututakoa**.

Norbaitek parte hartzen baldin badu nola edo hala norberaren egoerarekin lotura duen espeditentia batean interes-gatazka sortuko da. Horrelakoetan, **bi arauk bat egiten dute**. Izan ere, zerbitzari publikoen –berdin enplegatu ala kargu publikodun izan– objektibotasuna, inpartzialtasuna eta zuzentasuna bermatzeari buruzko ataletan indarreko legeetan xedatutakoari heltzen dio Kodeak.

Hau da, gerta daiteke gatazka bat sortzea kargu publikodun den aldetik pertsona batek defendatu behar dituen interesen eta norberaren edo gertuko pertsonen interesen artean. Horrelakoetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 28. artikuluan arautuetatik **auzian parte ez hartzeko arrazoi hauetakoren bat betetzen ari dela** jo daiteke:

- Gaiari interes pertsonala izatea (28.1. artikulua).
- Prozeduran interesa duten edo parte hartu duten pertsonekin maila jakin batera arteko odol-ahaidetasuna izatea (28.1.b. artikulua).
- Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetako batekin adiskidetasun mina edo ikusiez in nabarmena izatea (28.1.c. artikulua).

Era berean, **norberaren edo gertuko pertsonen egoerarekin lotura duen administrazio-espeditante batean kargu publikodun gisa parte hartzean, kargu publikodunen eta parekatuen zuzentasun-, inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei buruz Etika eta Jokabide Kodean xedatutakoa bete behar da, bai eta onestasanari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari buruzko jokabideetan xedatutakoa ere.** Aurreko paragrafoetan jardun dugu xedapen horiei buruz. Beraz, aurretik esandakoa gogoan hartuko dugu.

Abstentzio-arauen edota interes-gatazkari buruzko arauen bitartez, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta zuzentasuna bermatu nahi dira jardun publikoan. Hala ere, baliteke norbaitek **espeditante batean parte ez hartzea badaezpada ere norbaitek zalantzan jar dezakeen interes-gatazkarik dagoela**; badaezpada, era horretako benetako arrazoirik egon gabe. Hori eginez gero, kargudun publikoak edo parekatuak funtzioak utzi dituela jo daiteke, betiere, legeetan xedatutakoaren arabera, eskumena ukazina bada. Gainera, hori gertatuz gero, beste printzipio batzuk urratuko lirake, adibidez: zuzentasunaren printzipioa, eta agindutako funtzio publikoa betetzeko orduan bikaintasunez jokatzeko printzipioa.

3.1.- Egin diguten kontsultaren kasuan, kontsultatzaileak **auzian interes pertsonalik ez duela** uste dugu (betiere, prozedurari buruzko legeetan xedatutakoaren arabera). Uste dugu, baita ere, zuzeneko interes-gatazkarik **ez** dagoela (Etika Kodean xedatutakoaren arabera), interesdunak ez baitu espeditanteari buruzko eskaerarik egin, haren mesedean joka dadila eskatuz. Interesdunak, bestetik, ezingo luke esku hartu zer lanpostu lekuz aldatuko diren zehazteko orduan, betiere, legeko arauetan alde aurretik finkatutako irizpideak betetzehazten badira lanpostu horiek.

Are gehiago, karrerako funtzionario den aldetik, Bilbora aldatuko diren lanpostuetako bat bera titular duen hori izan dadila eskatzeko eskubidea du interesdunak, eta **uko egin dio legeko eskubide horri**.

Horrela bada, zer lanpostu lekuz alda daitezkeen zehazteko espeditanteari hasiera emateko edo hura sustatzeko orduan interesdunak parte hartu ez duela jaso da zenbait oharretan. Azken horiek baztertu egiten dute zuzenean norberaren mesedean jardutearen interes-gatazkarik egon daitezkeenik. Horretaz gainera, gatazkarik egon ez dadin eta inork era horretako gatazkarik dagoen zalantzan jar ez dezan, edo horren susmorik ere izan ez dezan, lege zegozkion eskubideei uko egin die kontsultatzaileak; hau da, uko egin dio lekuz alda daitezkeen lanpostuetako bat berea izateko aukera betetzeari.

Lanpostu-zerrenda aldatzeko espeditante administratiboan parte hartu izanagatik kontsultatzaileak zuzeneko onurarik izan zezakeen baztertu ondoren, **norberaren edo gertuko**

**pertsonen mesedean zeharka jardun duen aztertu beharra dago**, betiere, prozedura-legeetan eta Etika Kodean xedatutakoaren arabera.

3.2.- **Norberaren zeharkako onurari** dagokionez, kontsultatzaileak auzian zer interes pertsonal duen aztertu beharra dago (betiere, prozedura-legeetan xedatutakoaren arabera) edo, bestela ere, interes-gatazkarik dagoen (Etika Kodean xedatutakoaren arabera). Horrela bada, kontsultatzaileak adierazi duen moduan, administrazio-unitate bateko lanpostu-zerrendaren aldaketa izapidetzen ari da; eta karrerako funtzionario gisa haren titular den lanpostua, hain zuzen ere, administrazio-unitate horren barruan dago. Hortaz, aipatutako unitate hori konfiguratzeko moduak eragina izango du haren gain.

Horrela bada, **onartu beharra dago balitekeela kontsultatzaileak zeharkako interesa izatea** auzian. Beraz, administrazio-prozedurari buruzko legeetan eta Etika Kodean xedatutakoa betez, beste pertsona batek ordezkatu du interesduna, eta kontsultan aipatutako lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientean hari dagozkion funtzio guztiak beteko ditu, betiere, ordenamendu juridikoko arauak betez.

3.3.- **Gertuko pertsonen onurari** dagokionez, **familia-ahaidetasun** maila jakin batzuk egonez gero auzian parte hartu behar ez dela adierazi da administrazio-prozedurari buruzko legeetan. Hala ere, kontsultan ez da adierazi era horretako ahaidetasun-mailarik dagoenik kontsultatzailearen eta prozeduran parte hartzen duten beste pertsonen artean.

Administrazio-prozedurari buruzko legeen arabera, gertuko pertsonen multzo berean sartuko liriteke, baita ere, prozeduran parte hartzen duten pertsonetako batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

Alde horretatik, kontsultatzaileak ez du esan, inola ere ez, espedientean egon daitezkeen pertsonak adiskide dituenik. "Lankideekin harreman pertsonalak" izan dituela besterik ez du adierazi kontsultatzaileak. Horrek ez du esan nahi, inola ere ez, arauetan xedatutako adiskidetasun-maila dagoenik.

**Etika Kodeak**, gertuko pertsonen interesekiko gatazkei buruz ari dela, "**zuzeneko senitartekoen**" interesak edo "**hirugarren pertsonekin partekatutako interesak**" aipatzen ditu.

Prozedurari buruzko legea baino murrizagoa da gai honi buruz Kodean jasotakoa. Alegia, zuzeneko senitartekoez gain beste edozer pertsonaren interesak ere hartuko dira kontuan, baldin eta jarduneko kargu publikodunarekin partekatutako interesik baldin badute. Kodearen testuan ez da ezer esan kargu publikodunaren zuzeneko senitarteko ez diren eta kargu publikodunak haien interesak partekatzen ez duen pertsonen interesei buruz (testuan jaso ez arren, Kodearen muinean daude).

Aldez aurretik adierazi dugun moduan, aztergai dugun auzi honetan **ez da kontsultatzailearen zuzeneko senitartekorik**. Baliteke, hala ere, kontsultatzaileak, **administrazio-unitatearen etorkizuneko antolakuntzari eta diseinuari dagokionez, zenbait interesak partekatzea hirugarren pertsonekin**, administrazio-unitate horren barruan baitago karrerako funtzionario gisa kontsultatzailea titular duen lanpostua.

Beraz, **gertuko pertsonen onura artean izan daitekeela onartu beharra dago**. Izan ere, kontsultan ez da zehazki adierazi adiskidetasun-harremanik dagoenik, baina pentsa dezakegu

hirugarren pertsonen interes berak izan ditzakeela kontsultatzaileak, betiere, kontsultatzailea titular duen lanpostuaren administrazio-unitatearen antolakuntzari dagokionez.

3.4.- 3. atal honen aurre-aurretik egindako gogoetak kontuan izanik, esan beharra dago, **administrazio-prozedurari buruzko legeetan eta kargu publikodunen eta parekatuen Etika eta Jokabide Kodean xedatutakoari helduz, interesdunak ezin duela parte hartu (...)** Sailburuordetzako (...) Zerbitzuen gain eragina izango duen **lanpostu-zerrenda aldatzeko administrazio-espeditentean**. Horrenbestez, kasu honetan aplika daitezkeen arauak betez aukeratutako beste pertsona batek bete beharko ditu hizpide dugun espediente honetan kontsultatzaileari berez dagozkion funtzioak.

Azkenik, adierazi beharra dago Batzorde honi ez dagokiola galdetutako auzien legezketasuna aztertzea (egoki diren kasuak Ministerio Fiskalaren esku uztea besterik ez du aztertzen). Hala ere, **administrazio-prozeduran parte ez hartzeari buruzko gogoeta egin behar izan dugu ezinbestean**. Izan ere, Etika Kodeko balio nagusiak –zerbitzari publikoen inpartzialtasuna, objektibotasuna eta zuzentasuna– babesteko erabili ohi da abstentzioa. Horren harira, esan beharra dago auzian parte ez hartzeari buruzko prozedura-arauak betetzen ez badira, Etika Kodeak debekatutako jokabideen aurrean gaudela.

4.- Aztertu beharra dago, oraindik ere, kontsultan aitaturako lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientea dela-eta **Etika Publikorako Batzorde honi egindako edozer kontsultatetik urrundu behar duen interesdunak**.

Auzi horretan, atzera ere, **ez gaude, berez, administrazio-prozedura baten aurrean**. Beraz, parte ez hartzeari buruz administrazio-prozeduraren legeetan araututakoa ez da betearaziko kontsultatzaileak parte hartzeari dagokionez. Hortaz, Etika Kodeari eta **interes-gatazkaren** irudiari heldu beharko diegu.

Interes-gatazkarik egon den aztertu dugu aurreko beste atal batzuetan. Beraz, horietan guztietan jasotakoari helduko diogu oraingoan ere. Horrela bada, lanpostu-zerrendaren aldaketarekin lotura duen auzi horretan guztian –hau da, zortzi lanposturen destinoa Gasteiztik Bilbora aldatzeari dagokionez– **ez dago zuzeneko interes-gatazkarik administrazio publikoko lanpostu-zerrendaren konfigurazioko interes orokorren eta interesdunaren berezko interesen artean**.

Hala ere, baliteke kontsulta egin duen **interesdunak zeharkako interesa edo beste zerbaiten bitartezko interesa izatea auzian**, karrerako funtzionario den aldetik. Izan ere, lekuz aldatuko dituzten lanpostuetako baten titular da kontsultatzailea, funtzionario gisa. Inguruabar horrek eragina du, ezbairik gabe, unitate osoaren antolakuntzaren gain; unitate horretan lan egiten duten guztien gain; eta, nola ez, haien destinoa lekuz aldatuko den lanpostuen titularren gain.

Gainera, **konsultatzailearengandik gertu dauden pertsonetikiko edo harekin lotura duten hirugarren pertsonetikiko interes-gatazka** dagoela jo dezakegu. Izan ere, nahiz eta kontsultan ez den espresuki adierazi kontsultatzaileak familia-ahaidetasunik edo adiskidetasunik duen izapidetze bidean diren aldaketak ukitutako administrazio-unitatean dauden pertsonekin, hirugarren pertsonen interesak berezkozat ditu kontsultatzaileak, administrazio-unitate horretako beste pertsonen interesekin bat baitatuz kontsultatzailearen interesak.



Arestian aipaturako guztia gogoan, eta kontsulta hau aztertzeko eta lantzeko orduan kontsultatzaileak parte hartu behar ez izateari buruzko atalean adierazi dugun moduan, Etika Publikorako Batzordearen esku uzten diren etatik hizpide dugun auzi horrekin lotura duten gaietan interesdunak **parte hartu beharko ez** lukeela jotzen dugu.

Horregatik guztiagatik, Etika Publikorako Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

### ERABAKIA

**Lehena.**- (...) Sailburuordetzako (...) Zerbitzuen gain eragina duen lanpostu-zerrendaren aldaketari buruzko kontsulta egin du interesdunak –zortzi lanpostutako destinoak aldatzea Gasteiztik Bilbora–. Horrela bada, Etika Publikorako Batzorde honek **interesdunak egindako kontsulta ebatzi du**, eta honako erabaki hauek hartu ditu:

- a) Interesdunak **ez du parte hartuko** kontsultatutako auzia aztertzeko eta **lantzeko** orduan.
- b) Interesdunak **ez ditu beteko, oro har, Batzorde honen aurrean aurkeztutako lanpostu-zerrendaren aldaketari buruzko espedienteak lantzean dagozkion funtzioak**; hau da: espedienteak aztertea, izapidetzea eta proposatzea. Indarreko legezko ordenamenduaren arabera, egoki den pertsonak beteko ditu kontsultatzaileak prozedura honetan bete beharko lituzkeen funtzioak.
- c) Interesdunak **ez du parte hartuko kontsultan aipaturako lanpostu-zerrendaren aldaketarekin lotura duten gaietan**.

**Bigarrena.**- Interesdunak legezko eskubidea du karrerako funtzionario den aldetik dituen eskubideak betetzeko. Eskubidea du, bereziki, Gasteiztik aldatuko diren lanpostuetako bat berea izan dadila eskatzeko, aztergai dugun kontsultan aipaturako lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen barruan. Horretarako legezko eskubidea duela jotzen dugu, betiere, honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Kargu publikodun gisa izan beharrean, funtzionario gisa jardutea aipatu eskubide hori betetzeko orduan.
- b) Espedienteak sustatu ez izana, eta lekuz alda daitezkeen lanpostuak zehazteko orduan parte hartu ez izana, aurrez ezarritako arau orokorrak bete behar baitira horretarako.
- c) Kontsultatzaileak eskubidea du Bilbora alda daitezkeen lanpostu horietako bat bera titular duen hori izatea eskatzeko. Kontsultatzaileak eskubide hori betetzeak ez du eraginik izango, inola ere ez, kargu publikodun den aldetik dituen funtzioekin ez eta hari agindutako interes orokorrekin ere. Gogoan izan behar dugu, baita ere, interesdunak ezin duela parte hartu bera titular duen lanpostuko administrazio-unitatearen gain eragina izango duen lanpostu-zerrenda aldatzeko administrazio-prozeduran.

**Hirugarrena.-** Interesdunak prozesuan parte ez hartzeari buruz aurreko paragrafoetan adierazitakoa betez, jasota geratuko da **konsultatzaileak ez duela parte hartu kontsulta hau aztertzeko eta lantzeko orduan, ez eta kontsulta ebazteko erabakia hartzeko orduan ere.** Jasota gera dadila, baita ere, **konsultatzailearen funtzioak beste pertsona batek bete dituela.**

**Arantza Tapia Otaegi**

**Etika Publikorako Batzordeko burua**

**Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduak 4.**